



elkarkidetza

4. zk. 2003 MARTXOA

Lau hilabetez behingo buletina

titularrak

Epe ertainerako
Kudeaketa Planaren
Balantze positiboa
.....4. orr.

Erakundeentzako
web orriaren
aukerak
.....8. eta 9. orr.



86ko Plana eta Plan
berria bateratzea da
lehentasunezko
helburua
.....3. orr.

Urteko kuotak

■ 2003. urterako
ekarpen eta
prestazio berriak
.....2. orr.



editoriala

Elkarkidetza lanean ari da, BGAE eta pentsio planen kudeatzaile moduan proiektu bakarra sendotzeko. 86ko eta 98ko planak plan bakar batean bateratzea da Erakundearen lehentasunezko helburua. Erakundea egunez egun hazten ari da, Epe Ertainerako Kudeaketa Planeko zati-kako emaitzetan egiaztatu den bezala. Kudeaketa Plana abian jarri zenetik, hiru urte igaro ondoren, balantzea positiboa izan da oso. Izan ere, errentagarritasuna etengabe handitu denez eta kapitala metatu egin denez, estaldura-maila oso handia da, ekimen berriak jarri dira abian

eta gure bazkideen konfiantzari eutsi diogu. Besteak beste, bazkideek emandako eta kanpoko kontu-ikuskariek zein aktuarioek bermatutako informazioaren pribatutasuna eta isilekotasuna ziurtatzeko orduan, Datuak Babesteko Lege Organikoa zehatz-mehatz betetzen dugulako lortu dugu konfiantza hori. Elkarkidetzaren web orriak harrera ezin hobea izan du, aukera eta zerbitzu ugari eskaintzen ditu eta. Horra hor Erakundeak modernotasunaren eta teknologia berrien alde egin duen lan handiaren emaitza paregabea.

www.elkarkidetza.net

© Elkarkidetza BGAE.

e-mail: elkarkidetza@elkarkidetza.net

ARABA. Ramón y Cajal 7 y 9. 01007

VITORIA-GASTEIZ. Telf.: 945.14.11.41

BIZKAIA. Gardoki, 2 bajo. -48008 BILBAO

Telf.: 94.415.55.78

GIPUZKOA. San Martín, 2-20005 DONOSTIA.

Telf.: 943.43.02.56

Bazkideek Elkarkidetzaren web orriaren alde egiten dute



2002ko abenduan argitaratutako lauhilabetekarian, Erakundeak web orriaren bidez eskaintako zerbitzuak eta norberaren

datuak eskuratzeko urratsak azaldu zitzaizkien bazkideei. Horretarako, euren gakoak erabili besterik ez zuten. Epe labur honetan, hiru hilabete eskas, esperientzia interesgarria izan da oso, ezin konta ahala aukera eskaintzen dituelako komunikabideak.

Zenbait datu estatistiko dira bazkideek web orriari emandako harrera ezin hobearen adierazgarri. Besteak beste, zerbitzu hori erabiltzen duten lagunen kopurua nabarmentzen da: 863. Datu-basera sartu direnen %73,12 gizonak dira (631). Gainerako %26,88, ordea, emakumeak dira, hau da, 232. Adinari dagokionez, ezaugarriak bat datoz kasu bietan, 41 - 45 urte arteko gizonak eta emakumeak direlako ohiko erabiltzaileak. 408 erabiltzaile Bizkaikoak direnez, Bizkaia da aitzindaria lurraldekako sailkapenean. Ondoren, Gipuzkoa (307), eta gero, Araba (148).



Atxikimenduak **863**

Aktiboak	855
Pasiboak	7
Biak	1

Lurraldeka

Lagun-kopurua

Araba	148 (%17,15)
Bizkaia	408 (%47,28)
Gipuzkoa	307 (%35,57)

Instituzioak

Araba	23 (%14,11)
Bizkaia	72 (%44,17)
Gipuzkoa	68 (%41,72)
Guztira:	163

"e_kide" gehien dituzten instituzioak

Bizkaiko Foru Aldundia	161
Gipuzkoako Foru Aldundia	73
Gasteizeko Udala	55
Donostiako Udala	40
Bilboko Udala	38

2003rako Ekarpén eta Prestazio berriak

2003rako Ekarpén eta Prestazio berriei buruzko informazio gehiago emateko asmoz, hona hemen dagozkien zenbatekoak:

EKARPENEN TAULA			
TALDEA	LANGILEA	INSTITUZIOA	EKARPENAK GUZTIRA
A	81,55	81,55	163,10
B	66,59	66,59	133,18
C	54,63	54,63	109,26
D eta E	45,65	45,65	91,30

Urtero, 14 kuota ordaintzen dira: 12 hilekoak eta ekaineko zein abenduko gehigarriak.

Zenbateko horietatik, %90 erretiro-aurrezkietarako erabiltzen da, eta %10 arrisku-prestazioetarako (elbarritasuna eta heriotza).

ELBARRITASUN ETA HERIOTZAGATIKO ARRISKU-PRESTAZIOAK									
EMAKUMEA / TALDEA				ADINA	GIZONA / TALDEA				
A	B	C	D eta E		A	B	C	D eta E	
105.652,46	86.266,68	70.758,08	59.126,62	39 urtera arte	97.807,54	79.861,18	65.504,12	54.736,32	
94.618,96	77.257,68	63.368,68	52.951,88	40/44	65.945,56	53.845,46	44.165,38	36.905,34	
54.679,78	44.646,80	36.620,40	30.600,60	45/49	37.179,28	30.357,42	24.899,90	20.806,76	
42.053,16	34.336,98	28.164,04	23.534,32	50/54	26.545,52	21.674,80	17.778,20	14.855,76	
18.573,68	15.165,68	12.439,26	10.394,46	55/64	12.237,20	9.991,84	8.195,54	6.848,36	
11.726,54	9.574,88	7.853,56	6.562,58	65/69	6.921,70	5.651,66	4.635,62	3.873,60	

Etorkizun handiagoko plan bakarrerantz

Elkarkidetza lanean ari da, euskal langile publikoen BGAE eta pentsio planen kudeatzaile moduan proiektu bakarra behin betiko sendotzeko.

Horretarako, Erakundea ikuspegi finantzario, aktuarial eta juridikotik aztertzen ari da 86ko Planaren etorkizunerako aukera onena eta Plan Berrian sartzeko aukera.

Urtarrilaren 31n, Elkarkidetza EPSV erakundearen Ezohiko Batzar Nagusia egin genuen. Bertan, euskal langile publikoen BGAE eta pentsio planen kudeatzaile moduan proiektu bakarra sendotzeko amoz, Erakundeko zuzendaritza egiten ari den hausnarketa izan zen aztergai, besteak beste.

Elkarkidetzan, bi plan daude: 1986an eta 1998an sortutakoak. Azken plan hori sortu zenez eta MUNPALEko funtzionarioak Gizarte Segurantzako Araubide Orokorra joan zirenez, Plan zaharra (1986) itxi egin zen, eta ez zuen bazkide berririk onartu.

Plan biek euren ezaugarriak badituzte ere, batera kudeatzen dira inbertsioei, administrazioari, informazioari... begira. Gainera, bazkide gehienak 98ko Planean baino ez badaude ere, 86ko Planean bakarrik dauden taldeak eta plan bietan dauden taldeak ere badaude.

Proiektua sendotzeko orduan, ezin garrantzitsuagoa da bat egitea

Plan biek bat egingo balute, 86ko Planeko partaideak 98ko Planean sartuko lirakeke, metatutako eta aldagai berrietara zein erreserben banaketara egokitzean gehitutako eskubide ekonomikoak galdu gabe. Horrez gain, eskubideen erreserbarako beharrezko klausulak ezarriko litzaizkieke. Dena dela, horrek guztiak ez luke inolako eraginik izango ez 86ko Planeko onuradunetan ez 98ko Planeko partaideetan.

Errentagarritasun handia

Plan berrira atxikitako partaideen kopurua izugarri hazi da, gaur egun, 454 instituziotako 16.116 lagun daudelako bertan. Ondarea gora eta gora ari da etengabe, urteko ekarpenak 20 milioi inguru eurokoak direlako gaur egun eta Elkarkidetzak bere historian zehar lortutako errentagarritasunak handiak izan direlako (%10etik gora, batez beste).



Horren guztiaren ondorioz, 98ko Plana da etorkizuneko Plana.

Hori dela eta, urtero egiten direnak ez ezik, kontraste-azterketa aktuariala egiteko eskabidea onartu zuen Batzar horrek. Horrela, bada, ikuspegi finantzario, aktuarial eta juridikotik aztertu ahal izango du 86ko Planaren etorkizunerako aukera onena eta Plan berrian sartzeko aukera.

Azterketa hori oinarri izango dugu, behin betiko proposamena organo ahaldunei aurkeztu eta erabakia hartzeko orduan. Izan ere, epe ertainerako jarduketa planaren helburuetako bat

izango da. Jarduketa plan hori 2000. urteko Fondoaren Batzarrean aurkeztu zen, eta seguruena, bat etorriko da zenbait erakun-

de adierazgarrik euren sistemetan eginda-ko aldaketekin; esate baterako, Telefónica, Endesa, Iberdrola, Banka, Aurrezki Kutxak...

454 instituziotako 16.116 lagun daude Plan Berrian



Jon Zabalia Lezamiz
Presidentea



Juan Miguel Mendoza Aizpurua
Presidenteordea

Epe Ertainerako Kudeaketa Planak emaitzak lortu ditu

Epe Ertainerako Kudeaketa Plana abian jarri zenetik, hiru urte igarotakoan, poztasun handiz egiaztatu ahal dugu proposatutako helburu gehienak bete direla. Ondo egindako lanaren emaitza da.

Lehenengo eta behin, Lurralde Ordezkaritzek atxikita ez dauden taldeentzat egindako kanpaina berezien bidez garatutako plan estrategikoari esker, partaide-kopurua %81era arte igo da, tokian tokiko eta foru administrazioetako langile publiko guztiak kontuan hartuta.

Bigarrenez, 98ko Plana sendotzeko eta gure partaideentzako prestazioen estaldura-maila handia izateko, ekarpenek eta errentagarritasunak sortutako kapitala metatu behar zen. Helburu hori betetzen ari da, azken urteotan finantza merkatuetako egoera txarra izan bada ere.

Hirugarrenez, besteak beste, sektore publikoko mutualismoa eta pentsio planak behar bezala arautzeko esparru juridikoa lortzea genuen helburu. Bi helburuak bete egin ditugunez, Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurriei buruzko abenduaren 27ko 24/2001 Legea indarrean sartu ondoren, Elkarkidetzako 454 pentsio-planak bakar batean elkartuko dira.

Erakundeei buruzko legea

Bestetik, Finantza Sistema Aldatzeko Neurriei buruzko azaroaren 22ko 44/2002 Legeari esker, laneko pentsio-planak sustatu ahal dira eta administrazio zein instituzio publikoek ekarpenak egin ahal dituzte gizarte aurreikuspenarako mutualitateetara. Nolanahi ere, ez dira pentsio publikoak izango eta ez dira kontuan hartuko, hasierako ezarpena mugatzeko edo pentsio publikoen gehienezko zenbatekoa zehazteko orduan.

Arlo horretan, oraindik ez da Borondatezko Gizarte Aurreikuspenarako Erakundeei buruzko

Kapitala metatu egin denez, estaldura-maila handia lortu da



Legea aldatu, Eusko Jaurlaritzaz auzerazten ari da eta.

Laugarrenez, Irudi eta Komunikazio Plana jarri da abian. Horren bidez, erakundearen irudirako plan estrategikoa diseinatu da eta kanpoko zein barruko komunikaziorako azpiegitura sortu da, informazio-orriaren eta web orriaren bitartez.

Bosgarrenez, barruko egitura aldatu egin behar izan da, lagunen antolamendua eta aurrekontuen egitura helburu horien lorpenera egokitzeko.

Amaitzeko, Epe Ertainerako Kudeaketa Planaren arabera, prozeduraren bat ezarri beharra zegoen Elkarkidetzan dauden eredu biak bateratzeko. Izan ere, horretan lan egiten dihardugu.

Esparru juridikoa lortu da, sektore publikoko mutualismoa eta pentsio planak arautzeko.

Irudi eta Komunikazio Plana egia bihurtu da dagoeneko.

Partaide-kopurua %81era arte igo da, tokian tokiko eta foru administrazioetako langile publiko guztiak kontuan hartuta.

Elkarkidetzak, onbideratutako erakunde errentagarria

2002. urtean, ezin zailagoa izan da ondareak kudeatzea. Pentsio fondoak ez dira salbuespena izan, epe ertain eta luzean fondoei errentagarritasuna ateratzea delako euren helburuetako bat, pentsioen osagarriak eskaintzeko asmoz. Inbertitzeko orduan, segurtasunari lehentasuna ematen bazaio ere, errentagarritasuna ez da alde batera utzi behar. Hori dela eta, epe laburrean hartutako arriskuak txikiak dira, beste batzuetan adierazi dugun bezala. Horretarako, gehiago edo gutxiago mugatzen da errenta aldagarriko partaidetza.

Ingurune horretan, epe ertain eta luze-rako inbertsio politikaren ondorioz, Elkarkidetzak BGAE erabat onbideratuta dagoen erakundea da, Ondarea eta Betebeharrak alderatzeko taulan adierazten den bezala.

Ikusten denez, ondareak %23n gaitzen ditu betebeharrak.

Hasiera-hasieratik, Elkarkidetzak ondarea behar bezala kudeatu duelako sortu da superabiti hori.

Esate baterako, azken hiru urteotan akzioen prezioak jaitsi egin direla-eta, etekinak eskasak izan direnez, ondarearen %100 errenta finkoan inbertituz gero, ezin kaltegarriagoa izango litzateke epe ertainari begira.

1995etik 2000ra burtsako merkatuetan lortutako gainbalioei esker, erabat onbideratuta dugu ondarea, azken hiru urteotan burtsaren joera ezin txarragoa izan bada ere. Prezioak izugarri jaitsi direnean, fondo guztiak errenta finkoan inbertituz gero, onenean jarrita, 5 - 10 urte arteko epean, %3ko errentagarritasun garbiak baino ez genituzke lortuko, interes-tasen ustezko igoera kontuan hartu gabe.

Dibidenduko %4ko errentagarritasunak gehi aurreikusitako birbaloraketa

lortzeko aukera eskaintzen duenez, Burtsako zentzuzko ehuneko batean inbertitu beharrean, kudeatzaileak errenta finkoko %3ko errentagarritasun seguru batean inbertitzeko erabakia har dezan, ekonomiaren egoera ezin txarragoa izan beharko litzateke epe luzean.

Zuhurtzia eta arreta


Gaur egungo inguruabar politikoak eta ekonomikoak kontuan hartuta, zuhurtziaz jokatu behar da zein aktibotatik inbertituko den aukeratzeko orduan eta oso ondo jakin behar da zer enpresa sartuko diren zorroan. Era berean, zentzuzkoa da burtsan inbertitutakoaren ehuneko murriztea. Elkarkidetzak, %25etik %17ra igaro gara. Ehuneko hori %15etik jaitsiko balitz, gure iritziz, ez genuke parte hartuko etorkizuneko ekonomiaren garapenean. Behar besteko pentsio osagarriak eskaini ahal izateko, gure ondareak hazkuntza ekonomikoa hartu behar du kontuan.

Horrez gain, metatutako errentagarritasunak inflazioa hirukoiztu dutela adierazi behar dugu.

Gaur egun bizi dugun bezalako garai ekonomiko korapilotsuetan, fondoen kudeatzaileei eskatu behar zaie inguruabarren eraginpean ez egoteko eta pentsioak epe ertain zein luzean bermatzen dituzten inbertsio-politikei eusteko, metatutako kapitalak ez galtzekotan.

José Carlos Garay

ONDAREA ETA BETEBEHARRAK




ERRENTAGARRITASUNAK

Urteko errentagarritasuna, hasieratik %9,85

Urteko errentagarritasuna, azken 10 urteotan %9,996

KPI/ELKARKIDETZAREN ERRENTAGARRITASUNA ERLAZIOA



Martxoaren 21ean, Batzar Nagusia Kursaalean

454 Pentsio Planetako Kontrol Batzordeetako 1.100etik gora ordezkari ingo zaie deia Donostiako bileran.

Urteko bilerak prestatzen ari gara. Aurton, martxoaren 21ean egingo dira Donostiako Kursoal Jauregian, arauen arabera, hiru Lurralde Historikoetan egin behar direlako txandaka.

Urtero bezala, bi ekitaldi egingo dira. Lehenengo eta behin, Elkarkidetza BGAE erakundearen Batzar Nagusia egingo da, eta instituzioen zein partaideen ordezkari paritarioa duten 48 kidek parte hartuko dute bertan. Ondoren, Elkarkidetzako Pentsio Fondoak Kontrolatzeko Batzordea egingo da. Oro har, oihartzun handiagoa izan ohi du jendaratean.

Bigarren bilera horretara, Elkarkidetzako instituzio eta entitate-etako 454 Pentsio Planetako Kontrol Batzordeetako 1.100etik gora ordezkari joango dira.

2002ko kontuak eta kudeaketaren txostena aurkeztuko dira

Gaiak ohikoak izango dira: 2002ko ekitaldiko Kontuak eta Kudeaketaren Txostena aurkeztu, onartu ahal izateko; Finantza Sistema Aldatzeko Neurriei buruzko Legea indarrean sartu arte eraturako Pentsio Planak bateratu; eta Lege horrek Elkarkidetzako jardueran eta prestazioak estaltzeko sistemari izan ahal duen eragina eta sortu ahal dituen aldaketak azaldu. Amaitzeko, 2003rako Kudeaketa Plana aurkeztuko da.

Ohi bezala, partaidetza handiko jardunaldia izango da, Elkarkidetzako taldeetako ordezkariak euren iritzia eta ezagutza trukatzeko aukera ezin hobea izango dutelako. Elkarkidetzak egindako lanaren garrantzia argi eta garbi ikusiko da bilera honetan.



Arauen egokitzapenak

Urtarrilaren 31n egindako Ezohiko Batzar Nagusiak Gobernu Batzordeak proposaturako estatutuen eta arauen aldaketak onartu zituen.

Arrazoi birengatik egin zen proposamen hori.

Lehenengoa eta errazena, geure arauak egokitu Eusko Jaurlaritzak 2002. urtearen amaieran ezarritako xedapenetara. Horrela, bada, metaturako eskubide ekonomikoak Borondatezko Gizarte Aurreikuspenetako Erakundearen artean traspasatzen direnean, %0,3ko komisioa ordainduko da gehienez ere.

Bigarrena, Elkarkidetzako partaideen eskubideak babestu, aitortutako gaixotasuna edo sortutako ezintasuna duten partaideak sartu gero.

Instituzio bat sartzen denean, bertako langile guztiak sartzen dira gure erakundearen, eta guk ez dugu ustezko ezintasunei buruzko inolako azterketa fisikorik edo osasun azterketarik eginen.

Nolanahi ere, eskatzailea une horretan bertan sartzen ez bada eta, gero, denbora igarotakoan, sartzeko erabakia hartzen bada, ziurtatu egin behar dugu ez dela sartzen epe laburrean arrisku-prestazioa jaso beharko duelako, guztion artean ordaindu beharko genuke eta.

Beste lan-sistema batzuetan gertatzen den bezala, eskatzailea gure erakundearen derrigorrean sartu beharko balitz, ez luke baldintza hori bete beharko, taldeak oso-osorik sartzen

direnez, guztien artean ordainduko litzatekeelako ezintasun-arriskua. Nolanahi ere, gure erakunde partaideak borondatez sartzen direnez, interesegatik egindako altak saihesteko modu bakarra da.

Hain zuzen ere, alta geroago eskatuz gero, osasun galdetegia bete beharko du, eta profesional talde batek aztertuko du. Horren arabera, zenbait prestazioen estaldurarik gabe geratu ahal izango da. Ez zaio debekatuko Elkarkidetzan sartzea, baina, esate baterako, jakinarazi egingo zaio Elkarkidetzak ez diola estaliko gaixotasun edo aitortutako prozesu horrek sortutako ezintasuna; gainerako prozesuak, ordea, estali egingo zaizkio.

Hori arautzeko, bi egokitzapen egin dira. Batetik, gaixotasunen baremo berezitua hartuko da erreferentziatzat. Horren arabera, osasun txosten bereziaren bidez, aitortutako prozesuaren arabera bazterketa proposatuko da. Bestetik, partaide bat sei hilabetez jarraian etenduran egon bada (kotizatu gabe), Gobernu Batzordearen berariazko erabakia beharko du berriro sartu ahal izateko.

Ustezko alta ez da inolaz ere eragotziko, baina estalduraren batetik kanpo uzteko proposamena objektiboagoa izango da eta Gobernu Batzordeak sarreraren alde berariaz emandako erabakia beharko da berriro sartu ahal izateko.

Norberaren datuak, pribatutasunaren berme osoa

Zerbitzu ona eskaintzeko, ahalik eta informazio gehien izan behar dugu bezeroari buruz. Zenbat eta datu gehiago izan, orduan eta aukera gehiago ditugu banan-banako zerbitzu ezin hobea eskaintzeko.

Tentuz ibiltzeko moduko gaia denez, argi eta garbi dago zorrotzasun handiz tratatu behar dela bazkideak emandako informazio guztia, ahalik eta pribatutasun eta isilekotasun handiena bermatzeko.



Jesús Mª Larretxi
Idazkari nagusia

Elkarkidetzak erakundeak partaideen ondarea eta pentsioak kudeatzen ditu. Horrela, bada, partaideak erretiratzen direnean, sistema publikoko pentsioen osagarri den prestazio ona eskaini ahal die.

Zeregin hori eraginkortasunez bete ahal izateko, geure partaideen datu ugari erabili behar ditugu. Hori dela eta, arreta eta zuhurtzia handiz jokatu behar dugu.

Hain zuzen ere, prestazioak zenbatetsi, prestatu eta ordaindu ahal izateko, jaioteguna zein den jakin behar dugu, erretiroari begira; egoera zibila, ustezko alarguntza-prestazioei begira; bizirik dirauen lagunik dagoen ala ez, zurtasunari begira; kontu korrontea, prestazioak ordaintzeko; eta osasunari edo ezintasunari buruzko datuak ere bai, ustezko ezintasun-prestazioei begira. Dendak dira norberaren datuak, baina ezinbestekoak dira geure helburua bete ahal izateko.

Partaideak eman digun informazio hori zorrotzasunez tratatu behar dugu, ahalik eta pribatutasun eta isilekotasun handiena bermatzeko.

Abiaburu horiek kontuan hartuta, kanpoko aholkulari baten aholkularitzaren bidez, Elkarkidetzak egoera hori eta Datuak Babesteko Lege Organikoak xedatutakoa aztertu du. Horrela, bada, zehatz-mehatz eta berme handienaz beteko du Legeak esandakoa, gaur egungo edo etorkizuneko prestazioak estaltzeko asmoz, gudan konfiantza jarri duten lagunentzako datuak babesteko. Gure esku dagoen informazioa erdi-mailakoa da, Legeak egindako sailkapenaren arabera. Osasunari buruzko informazioa, ordea,



goi-mailakoa da, baina, segurtasuna dela-eta, guk ez dugu sisteman sartzen. Izan ere, paperean dago giltzapean gordeta. Hori dela eta, erdi-mailakoak dira sisteman dauden datuak.

Datu horiek babesteko, urte batzuk daramatzagu zenbait jarduketa abian jartzen, eta gaur egun ere, gehiago jarri ditugu abian, aholkularitza-enpresak egindako proposamenen arabera.

Horrela, bada, erabiltzaileek hitz gakoak behar dituzte sarean sartzeko. Norbait sarean sartzen denean, Elkarkidetzako informazio orokorra eta bere informazioa baino ez ditu eskuratzen.

Segurtasun gakoak

Datua eman baino lehen, eskatzaileari eskatzen diogu nor den adierazteko. Oro har, eskatzaileak oso ondo onartzen du eskaera hori, bere datuak babesteko dela azaltzen diozunean. Horrez gain,

Legeak ezarritako konpromiso formalak bete behar dira, tratamenduaren arduraduna izendatu behar da (eginda dago) eta partaide guztiei jakinarazi behar zaie nola eta norengana jo behar duten euren datuak zuzendu, eskuratu eta ezeztatzeko. Horretan dihardugu lanean, eta laster, guztiok izango dugu horren berri.

Ikusi dugunez, norberaren datuak izan behar ditugu, eskaintzen ditugun prestazioak kudeatu ahal izateko. Dena dela, bitarteko guztiak jarri ditugu eta jartzen jarraituko dugu, datu horiek behar bezala babestuta egon daitezzen. Seguruenik, norbaitek zailtasun handiagoak izango ditu berari buruzko informazioaren bat eman diezaiozun. Seguruenik, beste galdararen bat egingo diogu, nola edo hala nor den adierazteko eskatuko diogu. Hala ere, jakin badakigu ados egongo dela, geureak barik, bereak diren datuak babesten ari garela ikusten duenean.

Erakundeentzako aukerak

Utilidades para las instituciones

Zenbait aukera daude likidazioak ikusteko

- Zuzenean ikusi eta inprimatu ahal dira web orritik.
- **Egiatzapenetatik** ordenagailura jaitsi ahal da fitxategia (2002. urtetik aurrera) eta Excel edo Access bidez erabili ahal da.
- Horrez gain, beste aukera batzuk ere badaude:
 - Fakturak, urteko ekarpenen laburpenak hilaeteka edo bazkideka.

Hay varias opciones para ver las liquidaciones

- Desde la Web se pueden ver e imprimir directamente.
- Se puede elegir bajar un fichero al ordenador desde **comprobaciones** (desde el año 2002) y manipularlo con Excel o Access.
- Además existen otras funciones como:
 - Facturas, resúmenes de aportaciones anuales por meses o por socio.





- Amaitzeko, **egiaztapenetatik** bertatik ere programa bat eskaintzen da. Horri esker, aukeraturako fitxategia ikusi ahal da pantailan. Ezer egin gabe, inprimatu eta norberaren ezarpeneko fitxategi batekin edo aurreko hileko fitxategi batekin gurutzatu ahal da. Horren ondorioz, hileko aldaketen diagnostikoa lortzen da..

- Aukera horiek erabili ahal izateko, Ordezkaritzari erabiltzailea eta gakoa eskatu besterik ez duzu. Horrez gain, lankidetzaren protokoloa sinatu beharko duzu Elkarkidetzarekin, erabileraren arduratsua izango dela eta datuen pribatasuna bermatuko dela adierazteko.

- Por último, se facilita un programa, también desde **comprobaciones** que permite ver en la pantalla el fichero elegido. Sin necesidad de manipularlo, se puede imprimir y cruzarlo con un fichero de aplicación propia o con uno del mes anterior. Como resultado se obtiene un diagnóstico de las variaciones del mes.

- Para poder acceder a estas utilidades, basta con solicitar a la Delegación el usuario y la clave, y firmar un protocolo de colaboración con Elkarkidetzaren delegazioan, non se manifestatzen un erantzuzko erabilera, erabileraren pribatasuna bermatuko dela adierazteko.

